

IRAGARKIA

263. ALDIZKARIA - 2022ko abenduaren 30a - BEREZIA

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA

IRURTZUN

–MUSIKA ESKOLA–

Akats zuzenketa deialdi honetan: lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera

Alkatearen abenduaren 5eko 301/2022 Ebazpenaren bidez onetsi ziren deialdi honen oinarriak eta eranskinak: deialdia, zeinaren bidez onesten baita lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketaren bidez betetzea, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Akats bati antzeman zaio Espainiako nazionalitatearen eskakizunari dagokionez, eta, hortaz, zuzendu egin da, alkatearen abenduaren 16ko 308/2022 Ebazpenaren bidez. Izan ere, Espainiako nazionalitatea edukitzea ez da nahitaezkoa.

Deialdiaren oinarrien eta eranskinen gainerako testua bere horretan mantentzen dira; alkatearen abenduaren 5eko 301/2022 Ebazpenean ezarri bezala, alegia.

Eskaerak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izanen da, akats zuzenketa hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

Irurtzunen, 2022ko abenduaren 16an.–Alkatea, Aitor Larraza Carrera.

I. ERANSKINA

Deialdiaren ezaugarrien taula: lanpostu huts batzuk merezimendu-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoari jarraikiz (Enplegu publikoan dagoen behin-

behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien Legea).

Ikus taula osoa

DEIALDIA EGITEN DUEN TOKI ERAKUNDEA	IRURTZUNGO UDALA
-------------------------------------	-------------------------

1.–Lanpostuen identifikazioa.

Ikus taula osoa

PLAZAREN ZENBAKIA PLANTILLA ORGANIKOAN	LANPOSTUA	MAILA	ARAU BIDE JURIDIKOA	LANALDIA	DESTINOA	BEHAR DEN TITULAZIOA (adierazi)
25	Trikiti irakaslea	B	Lan-kontratudun finkoa	Aldakorra	Irurtzungo Udal Musika Eskola	–Akordeoko espezialitateko lanbide ikasket titulua edo goi mailako ikasketena; bestela, espezialitate horri dagokion erdi-mailako titulua, Musika Kontserbatoric Erregelamendu Orokorrari buruzko irailar 10eko 2618/19 Dekretuaren arabera eman edo titulu baliokidea.
27	Gaita irakaslea	B	Lan-kontratudun finkoa	Aldakorra	Irurtzungo Udal Musika Eskola	–Mihidun haize instrumentuen espezialitate bateko lanbide ikasketen titulua edo goi mailako ikasketena; bestela, espezialitate horri dagokion erdi-mailako titulua, Musika

						Kontserbatoric Erregelamendu Orokorrari buruzko irailar 10eko 2618/19 Dekretuaren arabera emanako edo titulu baliokidea.
28	Zeharkako flautako irakaslea	B	Lan-kontratudun finkoa	Aldakorra	Irurtzungo Udal Musika Eskola	-Zeharkako flautako espezialitateko lanbide ikasket titulua edo goi mailako ikasketena; bestela, espezialitate horri dagokion erdi-mailako titulua, Musika Kontserbatoric Erregelamendu Orokorrari buruzko irailar 10eko 2618/19 Dekretuaren arabera emanako edo titulu baliokidea.
29	Gitarra klasikoko irakaslea	B	Lan-kontratudun finkoa	Aldakorra	Irurtzungo Udal Musika Eskola	-Gitarra klasikoko espezialitateko lanbide ikasket titulua edo goi mailako ikasketena; bestela, espezialitate horri dagokion erdi-mailako titulua, Musika Kontserbatoric Erregelamendu Orokorrari buruzko irailar 10eko 2618/19 Dekretuaren arabera emanako edo titulu

							baliokidea.
--	--	--	--	--	--	--	-------------

2.–Betekizunak.

2.1. Espainiako nazionalitatea, nahitaezkoa (lanpostu zenbakia(k) adierazi):

bat ere ez.

2.2. Sexu askatasunaren eta sexu ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik edo gizakien salerosketarengatik, epai irmo baten bidez, kondenatua ez izateko betebeharra duten lanpostuak (plaza zenbakiak adierazi):

25, 27, 28, 29.

3.–Tasak.

3.1. Ordaindu beharreko zenbatekoa:

20,00 euro.

3.2. Ordaintzeko modua:

Transferentzia ES76 3035 0120 95 1200900000 zenbakira, kontzeptu honekin: "Musika-" eta identifikazio zenbakia.

4.–Deialdiaren web fitxa, toki erakundearen atarian (helbide elektronikoa).

Kontsultak egiteko: <http://www.irurtzun.eus/musika-eskola/>

Erregistrorako: <https://sedeelectronica.irurtzun.eus/>

5.–Lan publikoaren eskaintza onesten duen ebazpena eta Nafarroako Aldizkari Ofizialerako esteka.

2022ko maiatzaren 10eko osoko bilkura, 2022ko 95. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, maiatzaren 17an.

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2022/95/20>

6.–Deialdia onesten duen ebazpena.

Alkatearen 301/2022 Ebazpena, abenduaren 2koa.

7.–I. eranskina aldatzen duen ebazpena.

Alkatearen 308/2022 Ebazpena, abenduaren 16koa.

Iragarkiaren kodea: L2217216